



Ajangizko Udala



UDALA ERATZEKO ETA ALKATEA AUKERATZEKO OSOKO BILKURA AJANGIZKO UDALAK 2019KO EKAINAREN 15EAN OSPATUTAKO BILKURAREN AKTA.-

Ajangizko Udal Osoko Bilkura gelan, goizeko bederatzietan:

Bertaratuak:

- *Koldo Carbonell Oihartzabal jauna*
- *Leire Garatxena Larrabe andrea*
- *Gaizka Aspiazu Otazua jauna*
- *Janire Intxausti Juaristi andrea*
- *Ekaitz Lejarzegi Urizar jauna*
- *Ismael Oar-Arteta Undabeitia jauna*

Bertaratu ez direnak:

- *Iñigo Valencia Alacano jauna*

Bitarteko Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

AZTERGAIAK:

1. Adineko mahaia eratzea.
2. Udala eratzea.
3. Alkatea aukeratzea.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1.- Adineko mahaia eratzea

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikulua dioenari jarraituz, zinegotzi egiaztagutunak Idazkaritza Nagusian jaso ondoren, bertaratuak zinegotzietan zein den gazteena eta zein zaharrena aztertu da, bi zinegotzi horiek adineko mahaia osa dezaten, udal idazkariarekin batera.

Horren arabera, adineko mahaia Koldo Carbonell Oihartzabal jaunak (zinegotzi zaharrena) eta Janire Intxausti Juaristi andreak (zinegotzi gazteena) osatu dute. Lehendakari bezala adinez nagusia den Koldo Carbonell Oihartzabal jauna arituko da eta Idazkari bezala, Udaleko Bitarteko Idazkari-Kontuhartzailea den Saioa Pineda Aranburu andrea.

2.- Udala eratzea

Adineko mahaiak zinegotzi egiaztagutunak aztertu ditu, bai eta eskualdeko hauteskunde batzordeak udaletxera bidalitako ziurtagiriak ere, zinegotzi egiaztagutunak eta ziurtagiriak bat datozela baieztatzeko.

Horren ondotik, lege-aginduz, zinegotziek konstituzioa beteko dutela hitza eman dute.

Zinegotzien gehiengo osoa Osoko Bilkuran dagoela, adineko mahaiak Udala eratutzat jo du. Hona hemen zinegotzien zerrenda:

1. Koldo Carbonell Oihartzabal jauna
2. Leire Garatxena Larrabe andrea
3. Gaizka Aspiazu Otazua jauna
4. Janire Intxausti Juaristi andrea



Ajangizko Udala



5. Ekaitz Lejarzegi Urizar jauna
6. Ismael Oar-Arteta Undabeitia jauna

Jarraian, idazkariak hiru agiri hauek aurkeztu dizkio udalbatzari, zinegotziek azter ditzaten: a) kutzako kontaketaren agiria; b) Udalak dirutan nahiz baloretan dituen izakinen egiaztagiriak; eta c) udal ondarearen inbentarioa.

3.- Alkatea aukeratzea

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikuluari jarraituz, adineko mahaiak alkatea aukeratzeko baldintzak gogorarazi ditu:

- “Zinegotzi diren zerrendaburuak dira hautagai”.

Ajangizen zerrenda bi aurkeztu ziren udaletxerako, EH BILDU, Koldo Carbonell Oihartzabal buru zuela eta EAJ/PNV, Ismael Oar Arteta Undabeitia buru zuela.

Bi talde buruei beraien burua alkatetzarako aurkezten duten galdetuta, Ismael Oar-Arteta jaunak bera ez dela aurkezten azaltzen du.

Honen bestez, EH BILDU taldeko Koldo Carbonell Oihartzabal jaunak bere burua alkatetzarako aurkeztuta, honako emaitza jaso da bertaratutako zinegotzien aldetik:

- Adeko botoak: bost (5)
- Kontrakoak: ez daude
- Abstentzioak: bat (1)

Bozketak erakusten duenez, Koldo Carbonell Oihartzabal jauna da alkate hautatua.

Ondoren, Koldo Carbonell Oihartzabal jaunak onartu egin du alkate izatea. Udalbatza aurrean duela, agindu ere agindu du kargu hori beteko duela, kargu horrek berekin dakartzan ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiekin. Horrenbestez, Koldo Carbonell Oihartzabal jaunak hartu egin du alkate kargua.

Jarraian, alkate berriak kargua usten duen alkatearengandik, Saioa Etxebarria Bilbao andrearen eskutik hartu du alkate-makila.

Azkenik, alkateak:

“Ohore eta ardura handia da Ajangizko Alkate izatea. Gure helburua herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea zaintzea eta hobetzea da. Hemen ditugun arazoak eta beharrak entzun eta konponbideak bilatu, herritarrekin, biztanlegoarekin egon eta euren parte hartzea bultzatuz. Kolaborazioa eta elkarlana eskaintzen dugu, prest gaude datozen proposamenak aztertzeko. Ajangiz herri txikia da eta adostasunak indar handia du. Zoriondu zinegotzi izateko aukeratuak izan zareten guztioi, ilusioa eta gogoko lana ikusten, somatzen da. Aipamen bat ere nahi dut egin bertako beharginei, gure esker ona adieraziz, azken finean herritarrekin eurek egoten direlako lan handia egiten. Eta baita ere eskubideak urratuta dituztenentzat, gaixorik daudenentzat, sufritzen deudenentzat... horien danentzako gure esker beroenak eta gure laguntasun osoa. Beste barik, Gora Arangiz!! Eta Gora Euskal Herria!!”



Ajangizko Udala



Bilkura amaituta, goizeko bederatziak eta laurdenetan agiri hau egin dut lehendakariaren oniritziarekin, eztabaidatu eta erabakitakoa jasotzeko.

Mahaikideak:

KOLDO CARBONELL OIHARTZABAL

JANIRE INTXAUSTI JUARISTI

ALKATEA

Koldo Carbonell Oihartzabal

BITARTEKO IDAZKARI-

KONTUHARTZAILEA

Saioa Pineda Aranburu